


Euskal AEko eraikuntza kostuak %1,0 igo ziren 2013ko urtarrilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko urtarriletik 2013koa) eraikuntza kostuak %0,2 gehitu dira.

2013ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %1,0 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,2, EUSTATen datuen arabera.



2013ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %1,3 garestitu dira.

Urtarrilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %1,1eko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,8koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 gehitu dira eta Obra Zibilekoenak %0,1 jaitsi.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Makineria (%5,3), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%3,2), eta Material elektrikoa (%2,4) nabarmentzen dira, besteren artean. Aitzitik, urteko prezioetan (2013ko urtarrila, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Metalurgiaren (%-2,7), Ez-metalezko mineralen erauzketaren (%-0,9) eta Petrolioaren (%-0,5) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2013KO URTARRILA.
DATU AURRERAPENA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	121,0	1,0	0,2	1,0
ERAIKINAK	119,9	0,9	0,2	0,9
OBRA ZIBILA	125,3	1,3	0,0	1,3
LEHENGAIEN KOSTUA	120,3	1,3	0,2	1,3
ERAIKINAK	118,8	1,1	0,3	1,1
OBRA ZIBILA	125,8	1,8	-0,1	1,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	0,0	0,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.